

...eta

Kitto!

846 zkia.
2013-V-3



Europako ultra-txapelduna

Ray-Ban®

Bilduma
berria '13
prezio bereziak



* Kontsulta itzazu optikan, kanpainaren ezaugarriak.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

MULTIÓPTICAS
lehen a zerbitzu optikoetan



RPS 04/02

IRAZABAL
clínica dental

Antonio Murillo
Ainhoa Zulueta
Susana Sierra
Maitane G. Iñiguez
DOKTOREAK

Invisalign ortodontzia ikusezina



Ortodontzia estetikoa eta ikusezina

ORDUTEGIA: Asteleheneretik ostiralera: 08.00-22.00h / Larunbatetan: 10.00-14.00h

Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk - Tfnoa. 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com - info@clinicairazabal.com

...eta kitto!-ren
itzulpen
itzu
itzu
zerbitzua



**ERA GUZTIETAKO
TESTUAK
ITZULTZEN
DITUGU,
euskaratik
gaztelerara,
gazteleratik
euskarara,
eta ingelesetik
euskarara.**

- Urte askotako
ESPERIENTZIA dugu.

- Bezeroaren
beharretara
EGOKITUko gara.



elkartea@etakitto.com

ASTEAN ESANAK

"Arrisku handia dugu espezie moduan, zeren eta ingurugiroa suntsitzeko edo hurkoari min emateko dugun ahalmena askoz ere abiadura handiagoan hazten baita botere hori erabiltzeko gure jakinduria baino"

(STEPHEN HAWKING, ZIENTZIALARIA)

"Euskal naziogintzak porrot egin du, baita hizkuntzaren normalizazioan ere. Batzuetan presak eta beste batzuetan frenoak, mila gauza ez dira egin egin behar zirenak. Hala ere, epe luzera optimista naiz"

(JOSE LUIS LIZUNDIA, EUSKALTZAINA)

"Lula behartsuen aita izan zen, eta baita aberatsen ama ere. Brasilgo garapena kanpoko inbertsoreari eskainitako laguntzan oinarritzen delako: 2.000 milioi dolar nekazariarentzat eta 120.000 milioi kanpoko enpresentzat"

(JOAO PABLO RODRIGUES, NEKAZARIA)

"Askotan hedabideen inkestak zarata hutsa dira.%1eko igoerari edo jaitsierari garrantzia ematea ez du zentzurik, inkestak huts tartea normalean %3ko gorabehera izaten delako. Inkestak errealiteratu gerturatu beharko lukete"

(JOSU MEZO, ESTADISTIKAN ADITUA)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten eusquera

JARRAIXAN ERABILLI.- Norbait atzetik segika izan. "Gaztedixa guztia bere jarraixan darabill".

JARRAIXAN IBILLI.- Norbaiten edo zerbaiten atzetik ibili. "Bere bizi guztian aberastasunen jarraixan ibilli zan alperrik".

eskutitzak

- OHARRA -

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abizenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarririk

onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahala jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartera), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

AKATSAK ZUZENTZEN

Aurreko alean, Eibarko Txirrindulari Elkarteak presidenteari egindako elkarrizketan akatsa egin genuen. Aurrekontuari buruz galdetzerakoan 336.000 euroko aurrekontua zutela idatzi genuen, baina ez da zuzena. 35.000-36.000 euro artekoa da Eibarko Txirrindulari Elkartearen aurrekontua.

ERREDAKZIOA



Euskara Elkartea

ARGITARRAZTZAILEA: ...eta kitto! Euskara Elkartea. **HELBIDEA:** Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar

TELEFONORAK: 943 20 67 76 / 943 20 09 18. **FAXA:** 943 20 28 72.

Astekararen E-MAILak: erredakzioa@etakitto.com / komunikabideak@etakitto.com /

publizitatea@etakitto.com **Elkartearen E-MAILak:** elkartea@etakitto.com / normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA: Itziar Albizu, Mainer Aranberri, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez, Koldo Mitxelena. **ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte. **KOORDINATZAILEA:** Koldo Mitxelena.

ERREDAKZIO-BURUA: Silbia Hernandez. **DISEINUA ETA MAKETAZIOA:** Jose Luis Gorostegi.

ARGAZKI ARLOA: Leire Iturbe eta S. Hernandez. **HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta Mainer Aranberri.

PUBLIZITATEA: Itziar Albizu eta Belen Ulazia. **Tfnua:** 943 20 67 76. **AZALEKO ARGAZKIA:** Asier Cuevas

BANAKETA-ARDURADUNA: Ainhoa Luz. **TIRADA:** 8.100 ale. **INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

COPYRIGHT-A: ...eta kitto! **LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunik)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)

kutxa gizarte ekintza



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak,
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak
diruz lagundutako aldizkaria

Santa Kurutzeko jaixak

Gaur arratsaldian hasi eta domekara bittartian jaixa bete-betian biziko dabe Santa Kurutzen, horretarako Udalak eta auzoko jai batzordiak antolatutako programiari esker: gaur 17.30xetan kanpai-errepikak eta meziak ekingo ditse egitarauari eta gaberako bertso-afarixa prestatu dabe Ixua jatetxian, Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto bertso-larixekin. Bixar gozian mezia eta

gero hamaiketakua egingo dabe eta eguardixan Jon Ostolaza eta Unai Andonegi trikitilarixak saiuari ekingo ditse. Jarraixan umiendako jolasak, auzoko asto probak, bazkarixa eta erromerixia egingo dittue. Domekan, jaixak agurtu baiño lehen, atzera be mezia ospatu eta soka-dantzia, umiendako jolasak eta auzoko gaztien arteko herri kirolak jokatzeo tartia hartuko dabe.



Gaurtik domekara arteko programaziñua prestatu dabe. LEIRE ITURBE



39 alkarteri eskinduko ditse laguntza Udalak. SILBIA HERNANDEZ

Alkartiendako diru-laguntza

Astelehen arratsaldian kirol, kultura eta euskera alorretan diharduen alkartiak Udalak emondako diru-laguntza hitzarmenak siñatu zittuen, udaletxeo pleno aretuak hartu eban ekitaldixan. Aittatutako esparruetan biharrin diharduen 39 alkarteri laguntasuna eskinduko ditse Udalak, 46 jarduera edo proiektu garatzeko diru-laguntza emonda. Alkarte bakotxarendako hitzarmenak siñatzen hasi baiño lehen, Esther Kareaga

Euskera-Kultura ziñegotzixak guztieri eskerrak emon ditse, "urte guztian egindako biharrigaittik". Udalak taldieri emondako diru-laguntza 186.058 eurokoa da: hortik 45.963 euro kultur arloko alkartiendako dira, 21.298 kirol alkartiendako, 35.810 euro jai batzordindako, 81.862 euro euskeriaren gaiñian diharduen taldindako (tartian...eta kitto! Euskara Elkarteak) eta 1.125 euro gazterixiarekin lotutako alkartiendako.

Konpondu dabe Mugi txartelaren arazua

Astelehenetik aurrera Mugi txartela Euskotreneko linea guztietan arazo barik erabiltzeo aukeria eukiko dau jendiak, Gipuzkoako edozeiñ herrittik Ermura bittartian bidaiatzian. Horrekin bater, Barik txartela Bizkaiako edozeiñ herrittik Elgoibarko Toletxegaiñeraiñoeko ibilbidietan erabiltzeo aukeria egongo da. Holan, eibartarrak Mugi Euskotreneko linea guztietan erabiltzeo euki dittuen trabak

konpontzia lortu dabe. Bestalde, Eibar Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzan sartziari esker, Udalbusa bertako parte izatera pasauko da eta ekaiñaren 4tik aurrera Mugi txartela bertan erabili ahal izango da (oin baiño lau zentimo merkiago, bidaia bakotxeo 0'61 euro pagauta). Informaziño gehixago bihar dabenak www.mugipuzkoa.com helbidera jo leike.



ANTONIO BARRIO GUEDE

(2013KO APIRILAREN 26AN HIL ZEN, 61 URTE)



ZURE irribarre eta samurtasuna
betiko izango dira GURE ARTEAN

EIBARBUSEKO LANTALDE GUZTIAREN PARTETIK



Ospitalaren aldeko siñadurak Jaurlaritzan

Eibarren ospitala egitiaren aldeko 11.300 siñadura batu ditue horretarako egindako kanpaina amaîtuta eta aurreko asteko eguenian ospitala egitiaren aldeko plataformak Gasteizera jua ziran, Eusko Jaurlaritzan, Lehendakariari eta Osasun Sailburuari zuzendutako eskaera bana emoteko. Siñadurak babestutako eskaeria bertan registrauta geratu zan.



Maiatzaren Lehena Eibarren

Maiatzaren Lehenean bihargiñen aldarrikapenak kalera etartzeko mobilizaziñuak egin ziran hainbat hiritan eta Eibarren, LAB sindikatuak deittuta, eskualde maillako manifestaziño jendetsuak ziherkatu eban herrixa. Horren ostian, Untzagan ekitaldixa eta herri-bazkarixa



Eguazten eguardixan Eibarren egindako manifestaziñua. SILBIA H.

egin zittuen eta, egunerako programia biribiltzeko, arratsaldian gazte-xian kontzertuak eskindu zittuen. Maiatzaren Lehenian sindikatu aberzaliak "erabagi politiku-*en* kontra mobilizatze-ko premiña" azpimarratu eben eta CCOO eta UGTk murrizketen gaiñeko erreferenduma egitteko eskatzeko aprobe-txau eben eguna.

autuan

ZAHAR-ETXIETAN GREBAN

Apirillaren 28xan bost eguneko grebari ekin detse Gipuzkoako zahar etxietako bihargiñak, ELA eta LAB sindikatuak deittuta, eta patronalarekin lan baldintzen gaiñeko adostasunik lortu ezian, maiatzaren 13an greba mugagabera juateko deixa egingo dabe sindikatuak.



FATXADARAKO LAGUNTZAK

Udalak fatxadia konpondu eta igogailua ipiñi nahi dabenendako diru-laguntzak emongo dittu, azken urtiotan egin daben moduan. Aurten 90.000 euroko partida dake hórrendako eta azaruaren 15era arte egongo da eskaeria egitteko aukeria.

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

FORCHETTA
BAR/PIZZERIA

PIZZERIA BERRIA EIBARREN

Arragueta Kalea 25
20600 Eibar
943 25 77 55

Toribio Etxebarria sarixak eguaztenian banatuko dittue

Lehiaketara presentautako proiektu eta enpresa finalistak aukeratuta, datorren asteko eguaztenian banatuko dittue Toribio Etxebarria sarixak Coliseum. Aurtengo ediziñora 38 proiektu aurkeztu dittue, 27 "Enpresa Ideiak/Proiektuak" atalian eta hamaika "Sormen eta barrikuntza teknologikua enpresan" atalian eta hónetxe dira epai-mahaixak aukeratu dittuan finalistak: enpresa-idea eta proiektuak atalian, Medwhat (Bizkaia) adi-



men artifizialian/web semantikuan oiñarritutako osasun asistentzia pertsonala: Smiley Own Tech (Gipuzkoa), aurpegiaren errekonozimenduan oiñarritutako ikusmen artifizial soluziñua; Natural Grip (Gipuzkoa), kortxo partikulaz osatutako produktu ez labankor eta itsaskorra; eta Bihurcrystal (Gipuzkoa), ikerketarako eta azalera zientzietarako kristal kurbatuen diseiñu, fabrikaziñu eta salmenta. Eta enpresa barrixak atalerako aukeratuta-

kuak, Atten2 (Gipuzkoa), sektore eolikorako on-line sensorien garapen-merkaturatzia; Robsoc (Gipuzkoa), sare sozialen informaziñuaren iragazpen eta jarraipena egiteko sistemaa; Floarsat (Gipuzkoa), industri-arrantza eta itsas ingurunerako teknologikua aurreratuko buia satelitiendako garapen, fabrikaziñu eta salmenta; eta Enigmedia (Gipuzkoa), informaziñu teknologikua, elektronikua eta ikus-entzunezkuaren ikerketia eta garapena.

Merkadillua aurrerantzian Errebalen

Hasieran bestela iragarri zebe, baiña jendia ez nahastiarren merkadilluaren toki aldaketia astebete atzeratu eta datorren astian egittia erabagi dabe, aste honetan eguaztena jai eguna izatian eguaztenian barik atzo ipiñi ebelako merkadillua. Edozelan be, aurreko astetik dana prest dago Errebalgo aparkalekuan datorren astetik aurrera eguazteneko postuak bertan ipiñi ahal izateko.



1938kuen diamantezko ezteiak ospatzen

Erretratuan ikusten dittuzuenak aurreko barixaku eguardixan Untzagan alkartu ziran, zapi bana hartu eta, eurrittik babestiarren udaletxe barruko eskilleretan talde-argazkixa egiñ eta gero, eguna jai giruan emoteko. Beti Asarre alkartian zeozer hartu eta jarraixan tabernarik taberna ibilli ziran, bazkaltzeko ordua aillegau bittartian. 1938xan jaixotakuak Unzaga Plaza Hotelian bazkaldu eben eta bazkalosteko dantzaldixarekin agurtu eben aurtent 75 urte bete edo beteko dittuela ospatzeko antolatutako jaixa.



Enpresa mundua ezagutarazten

Nuria López de Gereñu Confebask-eko buruak eta Eduardo Zubiaurre JAZ Zubiaurreko gerentia aurreko astian hitzaldixa emon eben Portalean, Udalak bultzatutako "Gure enpresak ezagutu. Gure burua enpresotarako prestatu" proiektuaren barruan antolatutako saiuan. Ekimenean, Udalarekin batera Armerixa Eskoliak eta UNI Eibar-Ermuak be parte hartzen dihardue eta aurreikusitta dittuen jardueren artian, bestiak beste, informaziñua zabaltzeko DVD-a etartzia, enpresetara bisitak antolatzia eta ikasle eta gurasuekin topaketak egittia dagoz.

BARRIO autobusak eta mikrobusak

www.autocaresbarrio.es
info@autocaresbarrio.es

MOBILA: 659 87 89 89
943 17 15 01 / Aldapa, 6 (ERMUA)

URKIZU, 13 (Villalba-ren ondoan)
943 530 824 - 697 614 069

JAUNARTZEAK
DOMEKETAN ZABALIK
AURRETIK
ORDUA
HARTUTA

Aina
ILEAPAINDEGIA

TEEN AJEAK

Muzategi kaleko Indianokua gaztelekua zabaldu zutela urte bi bete direla ospatzeko jaia egin zuten gazteek apirileko azken asteburuan. Hamabi urtetik aurrerako gazteek bertan nola ibiltzen diren azaldu digu bertako begiraleetako bat den Iraider Garcia.

- Urte bi bete berri ditu Indianokua. Nola ospatu duzue?

Apirileko azken asteburuan jaia egin genuen, diskoteka eta guzti. Urte bietan horrela ospatu dugu urteurrena, gazteek hala eskatuta. Aurten, gainera, musika ipintzera etorri zen gaztea, DJ Bonano, eibartarra da. Aldatze ikastetxean DBH ikasten dihardu eta hemen ibiltzen diren gazteen artean ezaguna da, eurek proposatuta gonbidatu genuen jaia musikarekin girotzeko. Hasieran dantzan hastea pixka bat kostatzen zaie beti, baina behin hasita ez dute nahi izaten amaitzea!

- Bestela, ospakizun bereziak eta albo batera lagata, nolako da Indianokua gaztelekuko martxa?

Indianokua gaztelekua berez 12-17 urte bitarteko gazteak hartzeko pentsatuta dago, baina praktikan hona etortzen diren gehienak 14 urtetik behera-koak izaten dira. Gehienetan koadrila osoak etortzen zaizkigu, gutxi gorabehera beti berberak eta, beraz, elkar ezagutzen dugu. Horregatik, antolatzen diren jarduerak prestatzeko orduan eurek parte-hartzea eta gauzak proposatzea gustatuko litzaiguke eta horretan ahalegintzen dihardugu. Asan-

bleak egiten hasi gara eta lehenengoan zenbat proposamen bota zituzten ikusita asko poztu ginen, baina atzetik egindako bileretan emaitza ez da izan horren aberasgarria.

- Nolako jarduerak antolatzen dituzue?

Egitarau modukoa prestatzen dugu hilerok: eskulanak, filmak, Disparate Eguna, sukaldaritza ikastaroa, Play/Wii... Ping-pong-ak eta futbolinak arrakasta handia dute eta, nola ez, internet eta bideojokoak asko gustatzen zaizkie, baina horiek erabiltzeko mugak daude. Bestalde, sukaldaritza ikastaroetan prestatzen direnetarako behar diren produktuak erostera-eta gurekin batera etortzen dira, batzuetan erretzetaren bat ekartzen dute...

- Teknologia berriak aipatuta, gaztelekua badu bere txokoa interneten, ezta?

Bai, Gabonak aldera bloga (<http://eibarkogaztelekua.wordpress.com/>) sortu genuen, hemengo berriak jasotzeko, ekitaldien berri emateko, argazkiak ipintzeko... Gainera, egitarauari azken orduan gehitzen joaten garenak bertan ipini eta gazteek ikusteko aukera daukate. Twitterren ere bagaude (@IndianokuaGazte).

2. urteurrena ospatzeko diskoteka.



Iraider Garcia
(GAZTELEKUKO BEGIRALEA)

"Gazteak animatu nahi ditugu parte hartzera jardueren antolaketan"

aldatze

www.aldatze.org

Gure herriko argazki munduan dabiltzanak iñoiz baiño osasuntsuago dagoz: sasoi betian esaten dana. Eta oin dala urte batzuk hasittako bidari indartsu eutsi detse eta, krisixarekin be alkarbizitzen ikasitta, hillabete osuan iraungo daben Argazkilaritza Maiatzean bikaiña prestatu deskue. Danetarik izango da: erakusketak, taillarrak, rallya, argazki estudixua kalia, liburu aurkezpena, kamara estenoipeikuak... gozatzeko aukera bikaiña.



ARGAZKIZ betetako MAIATZA

Aurreko asteko egue-nian Klub Deportibua-ren lokaletan egindako aurkezpenian, bertako argazkilaritza batzordeko Jose Luis Irigoienek argi azaldu eban "programaziño berezixa prestatzeko" egindako ahalegiña, batzordiarengatik jardundakuen laguntasuna eskertzeko. Tamaiña horretako lanari ekiteko gogurekin batera, jendiaren erantzuna be azpimarratu eban Irigoienek: "Eibarko

jendiaren parte-hartzia eta baita kanpotik jasotako pres-tutasuna". Batzordiarengatik izen ona estatuan zabalduta dago eta mailla handiko fotografuak bikain erantzuten detse hamendik egitten jakuen propo-sameneri.

Programaziñuari helduta, gaur inauguratuko dira Portaleko eta Topalekuko erakusketak. 18.30xetan hasiko da Portaleko ekitaldixa, egillien presentziarekin gaiñera: Javier Fernandez Ferrerarek bost kontinentietan etaratako argazkixak ekarriko ditu, Juan Armentiak paralinpikuen argazkixekin osatutako "Olinpotik haratago" aurkeztuko dau eta, azkenik, Bosco Mercadalek bodegoiekin osatutako "Fotopoemas" lana erakutsiko digu. Aurkezpen horren jarraixan Topalekukua zabalduko da, 19.30xetan: hor 40. Gipuzkua Naziñoarteko Trofeuan sarritutako fotografixak izango dira ikusgai. Hórrek erakusketok, Portalekuak eta Topalekukuak,



Tino Sorianoaren taillarrek plazak berehala bete ziran.

hillaren 26ra arte iraungo dabe, ixa lau aste.

Ohikua danez, hillabete osua iraungo dabenak Deporrekueta Ambigú eta Portalea tabernan eta Untzagako jubila-tu etxian egingo diran erakusketak izango dira. Maiatzaren 1etik dakagu 32. Argizaiola



M^a LUISA CANO MARTINEZ

(Policarpo Rementeriarengatik)

I. URTEURRENA: 2012-V-3

"Emazte eta ama onena izan zara; horregatik, ez zaitugu inoiz ahaztuko. Asko maite zaitugu"

ZURE FAMILIA



Lehiaketan saritutako fotografik ikusteko aukeria Deporren eta Klub Deportiboko argazkilaritza taldekuenak, kolektibua, aittatutako beste hiru tokixetan.

Klik egitteko pasia

Desio horri erantzuta nahi izaten dabe antolatzailliak eta ondorengo produktuarekin gozatzekua. Hori dala-eta, aurtan be argazki digitaleko taillarra izango da, oinguan Tino Soriano entzutetsuak emongo dau. Bidaietako fotografixia landuko da hor eta, lehen aittatutako Argazkilaritza Taldiak estatuan daukan errekozimenduaren seiñale, "Soriano gure taldeko bazkide egin da". Lehelengo aldiz kobrau da taillar



hori, baiña halanda guztiz be "aste baten bete zan ipiñitako kopurua. 20 euro kobraudogu, baiña halako taillar baten 150 euroren bueltan baliodau". Taillar hori hillaren 11n egingo da.



Deporren egindako aurkezpen ekitaldixa, Irigoien, Kareaga, Larreategi eta Martinezekin. SILBIA HERNANDEZ

16xan, bestalde, "Kubako punk-ari buruzko argazki dokumentaleko proiektu bi" aurkeztuko dira, liburuarekin batera. Portalean egingo da, 19.30xetan hasitta. 18xan azken urtiotan modan ipiñi dan argazki estudixua prestatuko da Untzagan, jendiak parte hartzeko eta "Ikatzki esker, betiko moduan, etaratako argazkixak berehala errebelatuta". Egun berian, eta Durango F-STOP argazki elkartiaren eskutik, kamara estenoipeikuen ikuskizuna eskinduko jaku eibartarori. Gauza bixak goizeko 10.00etatik arratsaldeko 14.00xak arte iraungo dabe eta "argazkixak ikusgai egongo dira, zintzilikatuta, arkupetan eta zuhaitzetan".

Hillaren 26xan, bestalde, argazki-rallyaren ordua izango da; oinguan, gaiñera, bederatziherriren artian egingo den ligaren parte izango da, "Rallye Herriz-herri" izenarekin. Aitor Divassoni be eskerrak emon zetzesean antolatzailliak "urte osuan berak prestatzen dittuelako erakusketen kartelak".

Bixar Kongresua Portalean

Eibarrek hartuko dau, bestalde, bixar egingo dan Euskal Herriko Argazkilaritza Alkartien Kongresua: "Bigarren aldixa da gurian egingo dana". Batzarren ondoren, bazkarixa, argazkixen alkartrukia, Argizaiola eta beste lehiaketetako sarixen banaketia izango da Unzaga Hotelian.





SOLUCIONES TECNOLÓGICAS

Marka onenetakoen Zerbitzu Tekniko onena



www.eitek.net



Funeuskadi Eibar
SERVICIOS FUNERARIOS

Beilatokia Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27

Bulegoa:
Bidebarrieta, 6

24 orduko zerbitzu iraunkorra

943 82 15 39 · www.funeuskadi.com

GRUPO Funeuskadi
El primer grupo funerario de Euskadi

· Eibar · Donostia · Bilbao · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao · Portugalete · Santurtzi · Galdakao · Sodupe · Espinosa de los Monteros ·





Asier Serranoren

kolaborazioa

Azken oihua

Harkaitzetan gora doa gizona oihartzunak galdu duen oihuaren bila. Baratzean ari zen beharrean oihartzun nahasia belarrietara iritsi zaionean, eta goldeaz zizareen zintzurak mozteari laga dio.



Hots errepikakorra baino ez darama txapel azpian bueltaka, baina ez da haren esanahia deszifratzeko gai. Badaki igande izoztuetan baserriari itzala ematen dion mendiaren puntan behar duela egon, nonbait egotekotan, oihuak. Gizonak ez ditu aditzen ez aziendan lotutako zakurren zaunkak, ezta abarkekin zapaltzen dituen txirriten hezurren kexuak. Gizonak ez du aditzen ez ezkila-loreen errezorako deiadarra, ezta putre azaldu berrien hegaden bafada. Hots errepikakorra baino ez darama txapel azpian bueltaka.

Harkaitzetan behera doa gizona, oihuak galdu duen oihartzunaren bila.

musika

Hil Aiari
"Hil Aiari"

Zazpi urteko ibilbidea amaitu zuen Odolaz Blai taldearen errautsetatik sortu den Enkarterriko taldeak izen bereko diskoa ekoitzi du. Abiadura handiko rocka oinarri duten 11 abesti aldarrikatzaile eta kritikok osatzen dute 2011n sortutako hardcore taldearen estreinako lan hau. Digipack euskarrian kaleratu dute eta, diskoarekin batera, marrazki zein grafikoez osatutako horma-irudia eskaintzen dute.

Cobra
"Covered"

Bost abesti dira eta filmetako soinu bandetatik ateratako doinuak euren ukitu indartsuarekin jantzi dituzte, emaitza paregabearekin. Laukoteak, riff sendoz, ukabilkada bat dakar, Fantomasen *Director's Cut* diskoaren planteamendua jarraituz. Diskoa Xanperen eskutik grabatu dute eta, distortsioaz gain, sinte ezberdinen presentzia Abioren parte hartzeari esker nabari dezakegu. Abesti biribilak eta soinu bikaina.

Itsaso Araque
"Damutzen ez direnak"

Burgesia xehearen eta printzipioen gainbeheraren sasoiotan Europako hiri ezberdinetan bizi diren hiru gazteren egunerokoak dihardu. Gizarte neoliberalaren zuzrunbiloe-tan itota batzuetan, eta korrontearen menara eroso besteetan, bankari gazte bat, arkitekto bat eta kazetari bat. Nork bere bizitzan lehenesten duenaren inguruko gogoeta eta sistemari egindako kritika, modu entretenigarrian.

Asier Huegun
"Kolonbian bahituta"

Kolonbian mendi-bidaian zebilela beste sei turistekin batera bahitu zuten Asier Huegun. Egunerokoa idatzi zuen bahituta egon zen 74 egunetan eta, Gari Udabe kazetariaren laguntzaz, liburu bilakatu du. Barrena astintzen duen testigantza, hasi eta amai irakurtzeko modukoa: pasatako beldu-rra, sentitutako kontraesanak, harremanak bahitzaileekin...



literatura

LIBURU SALDUENAK

- 1.- "Twist" Harkaitz Cano
- 2.- "Alkasoroko benta" Mikel Taberna
- 3.- "Intemperies" Lourdes Oñederra
- 4.- "Kristalezko begi bat" Miren Agur Meabe
- 5.- "Rasputin eta S. Petersburgo" Joxemari Iturralde
- 6.- "Mussche" Kirmen Uribe
- 7.- "Ilargi horia" Joxemari Iturralde
- 8.- "Paradisua eta katuak" Bernardo Atxaga
- 9.- "Geltokiak edo helduta" Goiatz Labandibar
- 10.- "Ez naiz ni" Karmele Jaio



ASIER CUEVAS (ultra-maratoilaria)

“Lortutakoa, maila indibidualean izanda ere, taldeanaren fruitua da”

Zapatuan jantzi zuen Europako 100 kilometroko txapela eta, handik hiru egunera, martitzenean oraindik agujetak nabari zituen. Hala ere, oso pozik dago, lortutakoa itzela izan baita: gogorra den neurri berean. 100 kilometroko ultramaratoi hiru egin ditu orain arte: lehenengoan Espainiako txapela eskuratu zuen; bigarrenean, laugarren sailkatu zen Mundialean eta, hirugarrenean, Europako txapela jantzi du. 6 ordu eta 53 minutu behar izan zituen proba burutzeko, bere markatik 15 minutura. 30 kilometro bakartasunean eginda, lan zailenetakoa. Helburua errealitate bihurtzeko unean.

- Zer moduz doa errekupeazio fasea? Zer egiten duzu egun hauetan?

Erdi errekupeatuta nago, oraindik ere hanketan mina nabaritu arren. Lanera normal-normal joan naiz. Eguenean entrenatzeko asmoa dut, suabe izango bada ere. Beharbada bizikletan ibiliko naiz, gorputza zeozer mugitu eta errekupeatzeko ego kiago eta leunagoa egingo zaidalako. Gorputza barrutik garbitzen joan behar dut.

- Zelan joan zen lasterketa? Ez zitzaizun gogorra egin proba erdia zuk bakarrik egin beharrak?

Eguraldi ona izan genuen, 60. kilometroko txingorra kenduta. Aurreneko 40 kilometroak taldekideekin egin nituen eta, bai, 50.etik aurrera bakarrik egin behar izateak pentsatzeko denbora larregi eman zidan, niretzat lasterketa luzeagoa egin arte.

- Zure markatik urruti geratu zinen: ia ordu laurden, aurretik zuk zenuen denboratik...

Alde batetik, zirkuitoa gogorra zen, hainbat aldapekin, gorantza eta beherantza, eta hori ez da egokiena marka egiteko. Bestalde, zure asmoa proba irabazte bada, beste modu batera enfokatzeko lasterketa: horrelako txapelketa batean aseguratuz josten duzu eta buruan kalanbreak eta halakoak saihestea besterik ez duzu.

- Hala ere, lagunaren eta ingurukoaren animoak ez zitzaizkizun falta, ezta?

Hogeitabat lagun joan ginen hemendik, Azpeititik, familiakoak, nirekin entrenatzen ibili direnak eta lagunak tartean. Hori, pozgarria izateaz gain, motibagarria ere bada. Proban bertan Ibon taldekidearen laguntasuna izan nuen, 30. kilometroan laga behar izan bazuen ere.

- Horrelako proba bat prestatzea ez da erraza izango: ezin egunero 100 kilometro egin, ezta? Zenbat denbora behar izaten duzu?

Hogeitabat aste. Maratoia prestatzearen antzerakoa da; hori bai, tirada luzeagoekin. Proba honetarako 6-8 bat tirada egingo nituen, bakarra 60 kilometrokoa. Asko egin ditut 40 eta 50 kilometrokoak. Horetako tirada asko domeketarako laga izaten ditut eta, oraingoan, ia guztietan bakarrik jardun behar izan dut, taldekideek kros probak izaten baitzituzten.

- Zeintzuk dira zurentzako erronkak? Zeri helduko diozu gehienbat?

Epe laburrera, atsedena hartzea besterik ez dut nahi. Gero, asmoa bietan -maratoiak eta ultramaratoiak- jarraitzea bada ere, maratoiak bigarren planoan lagako ditut eta ultramaratoiaren munduko txapelketa non jokatu den zain nago, ea presatu ahal dudan. Hego Korean zen jokatzea, baina han ez da antolatuko... Bali-te Hegoafrikan izatea: ea hamabost egunetan zeozer dakigun.

- Zenbat galtzen duzu horrelako proba batean? Zelan elikatzen zara?

Ez daukat-eta galtzeko! Kilo bat akaso? Bost kilometrotik bost kilometrora edaten dut eta 2-3 aldiz barrira energetikoak hartzen ditut. Hori bai, barrira bigunak dira, gominola antzerakoak, korrika eginez jatea ere ez delako erraza egiten.

- Zeini edo zeintzuri dedikatzen diezu garaipena?

Inguruan izan ditudan guztiei: hasi familiarik eta lantalde, mekaniko, entrenatzaile eta jarraipen teknikoa egiten didadten guztiekin amaitzeko. Kirol indibiduala bada ere, taldean egindakoaren emaitza dira nire lorpenak.



Aurretik ere hainbat kros proba eta maratoi irabazi ditu Eibarko atletak.



UNITED COLORS OF BENETTON.

Calbeton, 6



Udabe
BEHAR DUZ
ospakizuneta
egunero erabi
moda gaztea e
arropa erosoak
oineta
konplem

Udabe

m



Zuloagatarren, 1
Valenciaga



merkalitatea

EMAKUME eta
GIZON MODA

Egunero erabiltzeko eta
ospakizunetarako
erropak





rrirako
UN GUZTIA
rako jantziak,
ltzeko erropa,
ta dibertigarria,
eta informalak,
akoak,
entoak...

rrirako
o d a

2
0
1
3



Birjiñape, 1

Zuloagatarren, 9

Guby
MUTILAK



T. Etxebarria, 22

Mutilak: 2 urtetik 10era
Neskak: 2 urtetik 16ra
eta 34 tallatik 42ra

SCARE



mabe



Bidebarrieta, 1 -EIBAR-
Erribera, 36 -ONDARROA-



Hernanira joan ziren Kalamuako alebin mailako judokak.

Kalamuako judokak bigarren Gipuzkoako judo txapelketan

Domekan Hernanin jokatu-ko alebin mailako probintziako judo txapelketan, Unai Sorraluzek, Asier Nuñezek, Beñat Mardarasek eta Asier Sebastianek osatutako taldea bigarren postuan sailkatu zen, Lezoko Klubaren atzetik eta Donostia-koaren aurretik. Guztira 21 tal-

de izan ziren parte hartzen. Kalamuako nesken taldeak, bestalde, 5. postuan amaitu zuen. Eneko Lores eta Manu Agirre ere han izan ziren: lehenengoa delegatu moduan eta bigarrena epaile. Bihar Kalamuako talde bat izango da Mostoleseko jiu-jitsu bosgarren torneoan.

Somos Eibar igoera promozioa jokatzeko atarian geratu da


Eibartarrek bere lana egin zuten Romo Indupimeko bizkaitarrei 26-23 irabaziz, baina Zaragoza bigarren sailkatuak ere Anaitasuna erraz menperatu zuen eta, horrela, aragoiarrek puntu bakarreko aldeari eutsi zioten. Denboraldi bikaina egin dute Imanol Alvarezen aginduetara jardun duten jokalariek, kontuan izanda gai-

nera taldearen batz besteko adina 21 urtekoa dela (jokalarien erdiak jubenil mailatik igotakoak dira). Iaz Gipuzkoako 2. mailan jardun eta gero nahiz eta errazegi irabazi zuten-, aurtengo erronka bereziari ondo erantzun diote eta horren maila gogorrean bikain jarduteko gauza direla erakutsi dute.



Deltecok Duatloi Zirkuitoko podiumak hartu ditu

Asteburuan Bilbon eta Arbizun jokaturako probekin amaitu zen Euskal Herriko Duatloi Zirkuitoa eta, azken sailkapenean, Eibarko taldeko ordezkariak goiko postuak eskuratu zituzten. Horrela, Osoro anaiak onenak izan dira (Pello 23 urtetik azpikoen artean eta Txomin juniorretan) eta gauza bera Juanjo Romero beterranoen 2 mailan; bestalde, Roberto Gartzia (beterranoen I mailan) eta Ane Ziaran (23 urtetik azpikoak) bigarren postuan sailkatu ziren. Asteburu honetan triatloi denboraldia hasiko



Txomin Osoro Zirkuitoko junior onena izan da.



Zortzi eibartar Arratzuko mendi lasterketan

Bi kilometroko desnibela gainditzen dituen 32 kilometroko mendi lasterketa horretan izan ziren gure herriko zortzi ordezkari eta denek amaitu zuten ibilbidea. Maite Maiora mendarorak eta Ionut Zinca errumaniarrak irabazi zuten proban, honakoak izan ziren

Ereño, Iluntzar eta Arrola gainak zapaldu zituzten eibartarrek: Jose Mari Bernedo (18.a, 2:57:58 denborarekin), Ibon Vega (86.a), Raul Fernandez (93), Aitor Zabala (108), Oskar Gisasola (109), Josu Gisasola (124), Edu Uribe (145) eta Iñaki Zubiaurre (154).



AMELIA BASABE BASABE (Victor Aulestiarteren alarguna)

Apirilaren 30ean zure eguna izan zela aprobetxatuz, **GOGOAN ZAITUGULA** esan nahi dizugu.

ETXEKOEN PARTEZ



Eibar Golf Pitch & Putt klubaren garaipenak



Sanjuanetan Iperuako anexoan egindako golf erakustaldiaren irudia. LEIRE ITURBE

Eibar Golf Pitch & Putt klubeko ordezkariak lan bikaina egin dute azken torneoetan eta, horrela, Ireloko euren ohiko zelaian Javier Tejadak txapela jantzi zuen scratch-etan eta handicap-ean, Gerardo Pagaldai scratch-ean bigarren sailkatzen zen bitartean. Azken honek, dena dela, Nafarroako Lizason jokatuako III. Ipar Zirkuitoan txapela bereganatu

zuen handicap-ean eta bigarren geratu zen scratch-ean. Gasteizko seminarioan jokatuako binakakoan, bestalde, Eduardo Vicente eta Alberto Egialde "Txolo" nagusitu ziren. Eta, azkenik, Ipiñatarrek garaipen bikoitza eskuratu dute Diman (Sergiok handicap-ekoa Santo Tomas torneoan eta Jose Estebanek match-playkoa Rating torneoan).

Kiroljokoa saria jokatu da domekan

Espero zenez, Txokok irabazi zuen foball-zalletuen liga Garajes Garcia.com taldeari puntu bakarrek aldea kenduta. Azken jardunaldian, dena dela, bataz zein besteak estuasun bati baino gehiagori egin behar izan zioten aurre euren partiduetan 2-1eko emaitzarekin

irabazteko: Txokok Fontaneria Mujikari gailendu zitzaion eta Garajesek Alkidebari. Etzi, goizeko 09.00etan, Txokok Boavista Ermuko txapeldunaren aurka jokatu du Kiroljokoa Torneoaren bila. Iazko finalean Koskorrek Boavistari irabazi zion

berriak

PILOTA

Buruz-buruko lehen jardunaldiko partidua hartuko du Astelenak domekan: Asier Olaiola vs Jaunarena. Aurretik, binaka, Aritz Lasa eta Peñagariakanok Gorka eta Pascuali egingo diete aurre. Amaitzeko, beste buruz-buruko bat, hau bigarren mailakoa: Apeztekoa vs Olazabal.

WATERPOLOA

Urbat-Urkotroik waterpolo taldeak jubencil mailako talde berria estreinatu zuen Gipuzkoako Ligan, Oiasso Bidasoari 15-6 irabazita. Atsedendaldira 4-5 joan eta gero, hortik aurrera eibartarrak erraz nagusitu ziren: Eneko Lapeira eta Sergio Fernandez nabarmendu ziren erasoko jokoan eta Ibai Madariaga sendoena izan zen defentsa lanetan.

Zeelanda Berriko irudien proiektzioa

Periko Iriondo Klub Deportiboko mendizaleak Zeelanda Berrira egindako bidaiaren irudiak eskainiko dituzte datorren eguaztenean, hilaren 8an, Deporren bertan 19.30etatik aurrera. Maorien herri bereziak, geiserrak, sumendiak, Tongariro eta Paku men-

dia... izango dira ikusgai. Bestalde, aurreko asteburuan Lasatik Baigorri-raino egindako mendi irteeran 36 lagun izan ziren "euria, txingorra eta elurrari aurre egiten". Autobusa bete zuten Deporrek mendizaleek 18 kilometroko ibilbidea egin zuten.



MAIATZAK 12
HERRI URRATS
 IPAR EUSKAL HERRIKO IKASTOLEN JAIAREN
 30. EDIZIOARA JOATEKO
AUTOBUSA
 Irteera: 09.30etan Buelta: 19.30etan
 Prezioa: 10 euro

J.A. Mogel Ikastolako Gurasoen Elkarteak
 ...eta Kitto! Euskara Elkarteak

San Andres
 Gozotegia

- tartak
- enkarguak
- etxera

Bidebarrieta, 28
 ☎ 943 20 79 73

Zerbitzu osatuak Eibar eta eskualdeko osasun zentru eta etxeetan Gipuzkoa, Espainia eta nazioartetik egiten dira trasladoak

NTRA. SRA. DE BEGOÑA
 EHORZKETA-BEILATOKIA

● KOROAK ● ESKELAK ● HILARRIAK ● AGIRIAK

BULEGOAK ETA ERAKUSKETA: Txalixa-Zelai, 4-6 - beheak, ezk. ZERBITZU IRAUNKORRA: ☎ 943 201095 Fax: 943 202564

Afariketan programarako izen-ematea

Ume eta gazteen aisialdirako Udan Jolasetan eta Oporrak Afariketan programetan izena emateko epea astelehenean zabalduko dute. Hala eman zuten aditzera programetako arduradunek, Udalak eta Astixa aisialdi taldeak prentsaurrekoan: "Euskera eta aisialdia batzeko asmoz urtero antolatzen diren udaleku irekiek Udalak euskeraren normalizaziorako programari jarraitzen diote eta oso harrera ona izaten dute beti. Iaz eskaini ditzaizkegun toki guztiak, ia 500

plazak bete ziren, Afariketan programan 36 talde eta Udan Jolasetan programan lau talde osatuta". Udan Jolasetan Haur Hezkuntzako 2. zikloko 3. mailakoentzat (5 urteko gelakoentzat) pentsatuta dago eta uztailearen 1etik 12ra bitartean egingo da, 10.00etatik 12.00etara Urkizu eta Sansaburu ikastetxeetan eta Amaña eta Jazinto Olabeko ludoteketan. Kuota 40 eurokoa da.

Afariketan, berriz, DLH-ko umeentzat eskainiko da, txanda bitan: uztailearen 1etik 12ra



Asier Lopez de Viñaspre, Marisa Lapeyra eta Esther Kareaga. SILBIA H.

eta uztailearen 8tik 19ra. Betiko martxan, honetan egun osoko eta egun erdiko txangoak tartekatuko dituzte, beste jarduera batzuekin batera. Tarifa 60 eurokoa da ume bakoitzeko (anai-arreba kopuruaren

araberako kuotak aldatzen doaz). Kasu bietan izena emateko maiatzaren 6tik 9ra Indianoakua gaztelekura (Muzategi, 3) joan behar da, 11.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 18.00etara.



Ederto pasatu zuten Legarreko bertso-kantuan

Legarreko Jai Batzordeak antolatuta, zapatuan (apirilaren 27an) bertso-kantu bazkaria egin zuten Legarre Gain elkartean. Ekitaldian Mikel Arrillaga, Beñat Ugartetxea eta Julen Zelaieta bertsolariak hartu zuten parte izango dira eta gai-jartzaileak, berriz, Asier Ibaibariaga eta Arrate Gisasola izan ziren; azken honek, gainera gitarrarekin eta kantuan eman zizkien gaiak bertsolarietara eta Unai Larreategik soinuarekin lagundu zien kantuan jardun zutenei.



Amañako danborradarako entseguak

Aurten Amañako jaietako danborradetan parte hartu nahi dutenentzat entseguak datorren astean, hilaren 9an hasiko direla iragarri dute arduradunek. Hor hasi eta hurrengo asteetan eguenero izango dira entseguak, Amañako herri ikastetxeko jolastokian. Umeen entseguak 19.00etan hasiko da eta helduena horri amaitu eta jarraian, 20.00etan. Arduradunek

aurtengo danborradan pieza berriren bat estrenatzeko asmoa dutela azaldu dute eta, horregatik, parte hartuko dutenei ahal dela hasieratik entseguetara joateko eskatu diete. Horrez gain, gastadore-taldea osatzea gustatuko litzaieke. Norbait prest egonez gero, entsegu egunetan Amaña ikastetxera joan daiteke eurekin berba egiteko



Euskal Jaia ate joka

Eibarko Klub Deportiboak prestatutako programazioa maiatzaren 18an hasi eta hilaren 26ko asteburuan amaituko bada ere, gaur bertan jarriko dira salgai Deporren ohiko kantu-afarirako eta herri-bazkarirako txartelak. Zapatuko kantu-afaria maiatzaren 25ean egingo da, 22.00etan hasita, eta domekako herri-bazkaria 26an eta 14.30etatik aurrera. Baterako zein besterako txartelak 7 eurotan (langabetuak, ikasleak eta umeak) eta 10 eurotan (langileak eta dirua dutenak) salduko dira hilaren 19ra arte. Iaztik hona txartelak erdi preziora jaitsi dira, herriko 13 elkarte gastronomikok -Txirixo, Gazte Gogor, Ipuruja, Jaiki, Karamarroak, Legarre Gain, Umbe, usobide, Zatixa, Ospelak, Bide Alde, Amaña eta Batuak- prestatuko dituztelako.

Mintzalagunak Getarian

Aurreko zapatuan, eta eguraldi eskasari aurre eginez, Getarian pasa zuten eguna Berbetan mintzapraktika egitasmoko hainbat kidek. Zarautzen gosalduta eta gero, Balenciaga Museoa jostun getariarraren lan bikaina gertutik ezagutzeko aukera izan zuten. Getarian bertan giro ezinhobean bazkaldu eta

Eibarrera itzuli ziren trenez. Elkar ezagutu, euskaraz jardun eta astean behin elkartzen segitzeko indarberrituta bueltatu ziren herrira. Bestalde, urtero legez Euskal Herriko Mintza Eguna ospatuko da aurten ere: Elgoibarko Izarra Kultur Elkarteak 50 urte bete dituela-eta, Elgoibarren batuko dira mintzalagunak, ekainaren 1ean. Egun horretarako egitarauak, besteak beste, ibilaldi gidatuak, Mintza Kalejirak, bazkariak eta eMePebo5t taldeak girotutako erromeriak osatzen dute eta bazkarirako txartelak honezkero salgai ipini dituzte, Elgoibarko dinamizatzailearen bidez. Prezioa 20 eurokoa da, goizeko haiketako eta bazkalosteko kafea eta kopa barne. Hilaren 24ra arte egongo da erosteko aukera.



Su Ta Gar kontzertuekin aurrera

Su Ta Gar taldeak "Ametsak Pilatzen" diskoa Euskal Herrian eta kanpoan ezagutzera emateko kontzertu bira amaitu du, baina abesti berriak prestatzen diharduten bitartean kontzertuak eskaintzen jarraituko dutela iragarri dute taldekideek. Martitzenean Donostiako Doka Antzokian izan ziren zuzeneko emanaldia eskaintzen eta, aurreikusitako egutegiari jarraituta, hurrengo kontzertuak Zamudion (maiatzak 18), Tafallan (maiatzak 31) eta Mungian (ekainak 28) emango dituzte.



Juan San Martin bekarako deialdia

Atzo goizean aurkeztu zuten Udalak, Udaleko Euskal Unibertsitatearen laguntzarekin antolatutako XI. Juan San Martin beka Portalean. Aurtengo deialdian, bekarako ikerketa esparrua kazetaritza izango da eta beka eskatu ahal izateko bete beharreko baldintzak eta bestelako argibideak [bar.net helbidean eskuragarri ipini dituzte. Eskararak, berriz, Pegoran aurkeztu behar dira, 2013ko irailaren 2tik urriaren 11ra bitartean. Aurreko edizioetako bideetik, 9.000 euroko bekarako proiektua, azterlana eta memoria euskaraz egin behar dira, gehienez 18 hilabeteko tartean.](http://www.ei-</p>
</div>
<div data-bbox=)



laburrak

AKUARELARI ELKARTEA

Gaur 19.30etan Euskal Akuarelari Elkarteak "200 Nazioarteko Erakusketa" eta "I. Erakusketa Birtuala" inauguratuko ditu, Bilboko Ondare Aretoa (M. Díaz de Haro, 11). Izenak aditzera ematen duen moduan, akuarelak margotzen dituzten hainbat artistak osatzen dute elkarte, tartean Esther Galarza eibartarra.



ANA BELEN COLISEOAN

Maiatzaren 10ean, 20.30etan, Ana Belén abeslariak kontzertua emango du Coliseoan. "A los hombres que amé" disko berria aurkezteko emanaldirako sarrerak 30 euro balio du eta internet bidez edo antzokiko leihatilan zuzenean erosteko aukera dago. Lan berrian bere ibilbidean eragina izan duten hainbat omendu nahi izan ditu Ana Belén-ek, besteak beste Miguel Ríos, Joan Manuel Serrat, Joaquín Sabina eta Luis Eduardo Aute.

AMPARO SAIZ BASTARRICAren

1. urteurrena (2012-V-6)

Haren aldeko MEZA ospatuko da maiatzaren 4an (zapatua), 19.00etan, SAN ANDRES parrokan.

Zu joan zara, baina, zureganako gure maitasuna ez. Ez ditugu inoiz ahaztuko izan dituzun ilusioa eta bizipoza.
FAMILIA ETA LAGUNAK



KIKE AMONARRIZ
(soziolinguista eta aurkezlea)

“Euskeraz ez dakitenek ere hizkuntza transmititu dute”

Datorren asteko martitzenean Euskararen transmisioari buruzko III. Mintegia egingo da Portalean, ...eta kitto! Euskara Elkarateak antolatuta. Goiz eta arratsaldez garatuko den egitarauaren zatirik handiena hizkuntzaren transmisioan adituen hitzaldiek osatzen dute, baina mintegia agurtu baino lehen hizlari guztien parte-hartzea izango duen mahai-ingurua gidatuko du Kike Amonarriz soziolinguista eta aurkezleak.

- Lehenengoz izango zara transmisioaren inguruko mintegian. Parte-hartzaileak eta gaiak ikusita, zer espero duzu?

Parte-hartzen zeintzuk izango diren ikusita, mahai-inguruan mintegian landuko den gaiaren inguruko informazio zehatza jasotzea espero dut eta, zalantza barik, gai horietan murgiltzeko tartea izango da. Gainera, hizlari batzuren lana gertutik ezagutzen dut eta hitzaldietan esango dituztenak benetan interesgarriak izango dira. Entzuleek gaiaren inguruko informazio gaurkotua eta kontrastatua jasoko dute, gero norberak bere lan-esparruan aplikatzeko modukoa.

- Mahai-inguruko dinamizatzailea zaren aldetik, zer asmo daukazu?

Horrelako saioetan galderak amaierarako lagatzen dira, jendeak alde egiteko gogoia izaten du, erantzunak ematean larregi luzatzeko aukerarik ez dago, galdera batzuk errepikatzen dira... Horregatik, eta mintegian parte hartuko duten hizlariak oso interesgarriak direla kontuan izanda, hasteko erronda labur bat egingo dugu. Hizlari bakoitzak gehienez hiru minutu izango ditu beste hizlariak esandakoetatik atentzia gehien zerk deitu dien aipatu eta zerekin ados ez dagoen azaltzeko. Ondoren, bakoitzak berari buruzko aipamenei erantzuteko aukera izango du, hori ere oso modu laburrean. Horrez gain, goizean entzuleen artean txartel batzuk banatuko ditugu, nahi dutenek goizeko saioetatik aipagarrienak iruditu zaizkien bertan idazteko eta entzun dituz-

EGITARUA

08.45-09.00.- Akreditazioa eta dokumentazioa.

09.00-09.15.- Ongi-etorria.

09.20-09.55.- "Arrue ikerketa 2011: emaitza nagusiak". Pablo Suberbiola soziologoa. Soziolinguistika Klusterra.

10.00-10.45.- "Euskararen transmisioa Ipar Euskal Herrian gaur egun". Jean Baptiste Coyos. Linguistikan Doktorea eta Euskaltzaina.

10.50-11.30.- "Haurrek nola, gurasoek hala? Ideietatik aplikaziora", Iزارo Susperregi Urtxintxa eskolako soziolinguistika arloko koordinatzailea eta garapen pedagogikoa arloko kidea.

11.30-11.45.- Atsedena.

11.50.-12.25.- "Emozioen eta euskararen transmisioa familietan: etxean zer ikusi, hura ikasi" tailerra. Iñaki Pikabea. Psikologo, pedagogo eta Filosofia eta Hezkuntza Zientzietan doktorea.

12.30-13.25.- "Euskaldun hazi Nafarroan". Paula Kasares. Soziolinguistika eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakaslea.

13.30-15.15.- Bazkaria.

15.20-16.00.- "Ahotsak.com Ikasgelan - Nagusien ahozko ondarea ikastetxeetan zabaltzeko transmisio proiektua". Idoia Etxeberria (proiektuaren arduraduna) eta Asier Sarasua (Badihardugu Euskara Elkarteko presidentea).

16.05-17.40.- Hizlariekin mahai-ingurua. Dinamizatzailea: Kike Amonarriz.

17.40-17.45.- Agurra.

tenen artetik zerekin ez dauden ados eta zergatik azaltzeko, eta txartel horretan hizlariarentzat galderak planteatzeko aukera ere izango dute. Txartelak jaso eta entzuleek horietan idatzitakoak mahai-inguruan tartekatzen joango gara. Horrela, nahi duten guztiek parte hartu eta galderak egiteko modua izango dutela pentsatu dugu.

- Mintegirako gaia belaunaldien arteko transmisioa da. Mihiluze eta bestelakoak tartean, zuk hartueman handia daukazu gazteekin. Nolako euskara transmititu zaie?

Beste ezer baino lehen, datu bat azpimarratu nahi dut, benetan garrantzitsua delako eta, gainera, Europa osoan ez delako horrelakorik gertatu estatu bariko beste hizkuntza minorizatuetako bakar batekin ere: gazteen artean euskera jaso dutenen %52 familia erdaldunetatik dator. Beraz, euskeraz ez dakitenek hizkuntza transmititu dute. Hegoaldean transmisioa bermatuta dago eta Iparraldean egoera bestelakoa da, Jean Baptiste Coyosek azalduko duen moduan. Baina familia euskaldunetan badago hizkuntzaren kalitateari lotutako kezka bat: transmisio prozesuan zer irabazi eta zer galdu dugun. Hizkuntz-ondarea ez da egoki transmititu gurasoak akonplejatuta egon direlako, nahiz eta euren euskera oso ona zen, Eibarren ere. Eta transmisioaz dihardugunean ez gara bakarrik ezagupenean geratu behar, ikasitako horrentzat erabilera esparruak beharrezkoak dira.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, NAROA, domekan hamabi urte egingo dozuz-eta. Asko maitte zaitugu. Familixaren partez.



Zorionak, AMAIA, bixar zortzi urte egingo dozuz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, MIREN, gaur zei urte betetzen dozuzelako. Muxu haundi bat famelixa guztiaren partez.



Zorionak, IRATI, eguaztenian bost urte egin zenduaz-eta. Muxu pillua famelixa guztiaren partez.



Zorionak, JUNE Paguey, astelehenian lau urte egin zenduazelako. Familixaren partez.



Zorionak, AIORA, astelehenian bost urte beteko dozuz-eta. Zure famelixaren partez.



Zorionak, IMANOL, martitzenian zortzi urte bete zenduaz-eta. Segi holako jator! Muxu eta besarkada pillua etxekuen partez.



Zorionak, ENEKO, martitzenian hiru urte egin zenduaz-eta. Muxu haundi bat tio Patxi eta tia Nerearen partez.



Zorionak, NAIA, etxeko morroskita, bixar bi urte beteko dozuz-eta. Muxu haundi bat aitxitxa-amama eta izeben partez.



Ongi etorri, LIBE!!! Muxu haundi bat URKO eta famelixa guztiaren partez.



Zorionak, etxeko deabrutxo eta piratillari (apirillian ARRATEK zortzi eta MIKELeK hiru urte) bete dittuelako. Muxu haundi bana gurasuen partez.

hildakoak

- Cesar Coro Hubert. 89 urte. 2013-IV-23.
- Javier Abarrategi Garitaonandia. 72 urte. 2013-IV-25.
- Antonio Barrio Guede. 61 urte. 2013-IV-26.
- Benedicta Amuategi Arizaga. 86 urte. 2013-IV-27.
- Juan Carlos Armentia Vizuete. 45 urte. 2013-IV-27.
- Ana Mª Telleria Agirrezabalaga. 82 urte. 2013-IV-28.
- Josefa Zinkunegi Ibarbia. 89 urte. 2013-IV-29.
- Poli Gutierrez Beato. 89 urte. 2013-IV-30.

jaiotakoak

- Udane Andonegi Carrera. 2013-IV-16.
- Asier Urrea Ezenarro. 2013-IV-24.
- Danel Luengo Molina. 2013-IV-25.

Zorionak, MAIALEN, zure 9. urtebetetzian. Muxu haundi bat, printzesa, famelixa guztiaren eta, batez be, Irati eta Laiaren partez.



zineaColiseoan

(1 ARETOAN)

3an: 22.30

4an: 17.00, 19.45, 22.30

5ean: 17.00, 20.00

6an: 20.30

"Grandes esperanzas"

Zuzendaria: Mike Newell



(2 ARETOAN)

3an: 22.30

4an: 17.00, 19.45, 22.30

5ean: 17.00, 20.00

6an: 20.30

"Los amantes pasajeros"

Zuzendaria: Pedro Almodovar



(ANTZOKIAN)

3an: 22.30


4an: 19.45, 22.30

5ean: 20.00

6an: 20.30

"La gran boda"

Zuzendaria: Justin Zackman



(ANTZOKIAN)

4an: 17.00

5ean: 17.00

"Iron Man 3 3D"

Zuzendaria: Shane Black



BARIXAKUA 3

SANTA KURUTZEKO JAIK

17.30. Kanpai-errepika.
18.00. Meza, Santa Kurutzeko ermitan.
21.00. Bertso-afaria Ixua jatetxean, Beñat Gaztelumendi eta Julio Soto bertsolariekin.

ARGAZKILARITZA MAIATZEAN

18.30. Argazkilaritza Maiatzean: sei erakusketen inaugurazioa. Portalean. Ondoren, 19.30etan Topalekura joango dira.

BATZARRA

19.00. Jaixak Herrixak Herrixandakok deituta, sanjuanak prestatzeko bilera irekia. Montekasino pareko parkean.

ESKUBALOI JAIK

19.00. Txosnaren irekiera.
20.00. Dj jaia. Untzagan.

ZAPATUA 4

SANTA KURUTZEKO JAIK

10.30. Kanpaiak.
11.00. Meza, Santa Kurutzeko ermitan eta piskolabisa.
12.00. Soka-dantza, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen eskutik.
12.30. Haurrentzako jolasak.
13.00. Herri kirolak auzoko gazteen eskutik.
14.30. Jaien amaiera, kanpaiekin.

ESKUBALOI JAIK

17.00. Alebin mailako partiduak.
20.00. Dj jaia. Untzagan.

DOMEKA 5

SANTA KURUTZEKO JAIK

10.30. Kanpaiak.
11.00. Meza, Santa Kurutzeko ermitan eta piskolabisa.
12.00. Soka-dantza, Kezka dantza taldearen eta Usartza txistulari taldearen eskutik.
12.30. Haurrentzako jolasak.
13.00. Herri kirolak auzoko gazteen eskutik.
14.30. Jaien amaiera, kanpaiekin.

ESKUBALOI JAIK

14.00. Zozketa. Untzagan.

ASTELENA 6

ZIKLOMOTOR AZTERKETA

09.00. Ziklomotor-azterketa teknikoa (alde aurretik txanda hartuta, Udaltzaingoa, 943708424 telefonoan). Zezen-plazan.

SENDABELARREN FOROA

16.00. Sendabelarren Foroa: "Santiago belarra eta bioleta". Portalean.



Hilaren 8an, 19.30etan, Klub Deportiboan.

MARTITZENA 7

MINTEGIA

09.00. Euskararen transmisioari buruzko III. Mintegiaren hasiera (egitarau osoa 18. orrialdean). Portalean.

IKASTEN

10.30. "La era de la conciencia", Equiliaren eskutik. Armeria Eskolan.

BILERA

17.30. Gaztetan Udaberriaren programako "Arrainekin Lotan" irteerara doazenentzat bilera. Indianokua gaztelekuan.

KALERATZEAK STOP

19.00. Stop Desahucios taldearen bilera irekia. Portalean.

EGUAZTENA 8

IKASTEN

10.00. Mendi-ibilaldia: Gasteiz (Okina). Autobusaren irteera Ego-Gainetik (Urkizun, 10.03etan).



Hilaren 8an, 19.00etan, Gaztetxean.

SARI-BANAKETA

18.30. Torbio Etxebarria Sariak emateko ekitaldia. Coliseoan.

DOKUMENTALA

19.00. "Iñigo Cabacas. Crónica de una herida abierta" dokumentalaren emanaldia. Gaztetxean.

DANBORRADA

19.00. Umeen danborradarako entsegua.
20.00. Nagusien danborradarako entsegua. Bittor Sarasketa kalean (Beistegi eraikinean).

DIAPORAMAK

19.30. "Zeelanda Berria". Periko Iriondoren eskutik. Klub Deportiboan.

EGUENA 9

IKASTEN

10.30. "El intestino, nuestro segundo cerebro" hitzaldia, Marisol Gisasolaren eskutik. Armeria Eskolan.

IKASTEN

10.30. Jaskintza tailerra. Portalean.

KALERATZEAK STOP

19.00. Stop Desahucios taldearen bilera irekia. Portalean.

KALEETAN KANTUZ

19.30. Kaleetan Kantuz-ekoen entsegua. San Andres elizako lokaletan.

HOROSKOPOA

ARIES

Hobeto zaude? Lasai. Hurrengo egunetan indarra hartzen joango zara, berriz ere sasoiari jartzera. Eutsi goiari!

TAURUS

Ez zaitetz larritu azken elur malutekin, ez daukazu gaixotzeko arriskurik-eta. Udako erropetan hasi pentsatzen.

GEMINI

Nola mugitzen duzun gorputza! Bazen sasoi dantza pixka bat egiteko, uhertu aurretik. Animo, pista zeurea da-eta!

CANCER

Kalean gora, kalean behera, gelditu gabe ibiliko zara. Zeren bila? Zuk jakingo duzu. Ala ez? Esan, badakizu-eta!

LEO

Interes berezia piztuko da zuga. Batek igortzen dizun xarmak intriga sortuko dizu, berarekin maitemintzeraino.

VIRGO

Ez al zara isilduko? Beti berrikeretan eta inguruokak burukominez. Konturatu ze aurpegiarekin begiratzen dizuten.

LIBRA

Plan izugarriak egiten dituzu, baina inoiz ere ez dituzu betetzen. Errealistagoa izango bazina, beste kuku batek...

SCORPIUS

Ahotsa altzatzeko behartuta sentituko zara. Pazientzia handiko pertsona zara, baina egoera jasanezina izango da.

SAGITTARIUS

Espero ez zenuen deia jasoko duzu. Hobe duzu telefonoa ez hartzea, esango dizutena ez baitzaizu gustatuko... tira!

CAPRICORNIUS

Zentzurik ez duela uste baduzu ere, hainbat ingeniari eta arkitekto egin badute zerozergatik izango da.

AQUARIUS

Erraz nekatuko zara ariketa fisikoa eginez gero. Ez zaude oso ondo, baina segi kirola egiten, ea ohitzen zaren.

PISCIS

Fruta jaten duzu? Eta barazkiak? Ura edaten duzu? Ez ezazu zure burua engainatu. Elikadura onari eutsi, arren!

Ostirala	Larunbata	Igandea	Astelehena	Asteartea

erakusketak

✓ Maiatzaren 26ra arte

JAVIER FERNANDEZ FERRERASen argazki erakusketa. *Portalean.*

JUAN ARMENTIAren "Barnetik. Más allá del Olimpo" argazki erakusketa. *Portalean.*

BOSCO MERCADALen "Fotopoemas" argazki erakusketa. *Portalean.*

✓ Maiatzaren 31ra arte

32. ARGIZAIOLA LEHIAKETA argazki erakusketa. *Klub Deportiboan.*

DEPORTIBOKO ARGAZKILARITZA TALDEAren argazki erakusketa. *El Ambigú eta Portalea tabernetan eta Untzagako jubilatutuetan.*

lehiaketak

✓ Maiatzaren 10era arte

SANJUANAK 2013 EIBARREN KARTEL LEHIAKETA. *Pegoran.*

ALKOHOL LARREGI EDATEAREN KONTRAKO PEGATINA LEHIAKETA. *Pegoran.*

✓ Maiatzaren 20ra arte

ON EKIN! ENPRESA PROIEKTU ETA IDEIA LEHIAKETA. *ekingune@ekingune.com edo 943-208420.*

✓ Maiatzaren 23ra arte

KAMISETEN DISEINURAKO LOGOTIPO LEHIAKETA. *jaixakherrixakherrixandako@gmail.com*

✓ Ekainera arte

LI 8BURU-HAUSGARRIAK9 IRAKURKETA ETA IKERKETA LEHIAKETA. *Juan San Martin liburutegian.*

farmaziak

✓ barixakua 3

EGUNEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)
GAUEZ **Iraundegi** (Sostoatarren, 10)

✓ zapatua 4

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

✓ domeka 5

EGUNEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Las Heras Larramendi** (Calbetón, 19)

✓ astelehena 6

EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)

✓ martitzena 7

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

✓ eguaztena 8

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

✓ eguena 9

EGUNEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

✓ barixakua 10

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Aranburu** (*Gipuzkoa etor., 46*)

telefono jakingarriak

SOS deiak.....	112
Pegora.....	010
Udaletxea.....	943 70 84 00
Portalea.....	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB.....	943 20 38 43
Epaitegia.....	943 03 34 00
Iberdrola.....	901 20 20 20
Naturgas.....	902 12 34 56
DYA Larrialdiak ..	943 46 46 22
Gurutze Gorria...	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza.....	943 53 17 00
Eusko Tren.....	902 54 32 10
Pesa.....	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon.	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen ..	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Lanegunak: 07.00etatik 9.30etara ordu erdiro eta 09.30etatik 20.30etara ordu. Zapatuak: 07.00 eta 08.30etatik 20.30etara ordu. Jaiegunak: 08.30, 10.30, 12.30, 13.30, 15.30, 17.30, 19.30 eta 20.35. **DONOSTIA-EIBAR.** Lanegunak: 07.00, 07.30etatik 15.30etara ordu, 15.00, 15.30etatik 20.30etara ordu eta 21.00. Zapatuak: 07.00, 08.30etatik 20.30etara ordu, 21.00 eta 22.00. Jaiegunak: 08.30etatik 18.30etara bi ordu, 19.30, 21.00 eta 22.00.

EIBAR-BILBO. Lanegun eta zapatuak: 06.40-etatik 20.40etara ordu. Jaiegunak: 07.40-etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Lanegunak: 06.40etatik 21.40etara ordu erdiro. Zapatu eta jaiegunak: 07.40etatik 21.40etara ordu erdiro.

EIBAR-GASTEIZ. Lanegunak: 07.00etatik 21.00etara ordu eta 06.15, 10.15, 14.15 eta 18.15. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

GASTEIZ-EIBAR. Lanegunak: 06.30etatik 20.30etara ordu eta 12.00, 16.00 eta 20.00. Jaiegunak: 10.30, 14.30, 18.30 eta 20.30.

EIBAR-IRUÑEA. Lanegunak: 07.45, 13.30 eta 14.45. Jaiegunak: 07.45 eta 18.00. **IRUÑEA-EIBAR.** Lanegunak: 11.00, 17.00 eta 18.00. Jaiegunak: 11.00 eta 21.00.

EIBAR-ARRATE. Zapatuak: 14.00. Jaiegunak: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Jaisteko: ordu erdi geroago.

EIBAR-ELGETA. Lanegunak: 06.40, 08.40, 13.40, 15.40, 16.40, 18.40 eta 20.40. Zapatu eta jaiegunak: 08.40, 13.40, 15.40 eta 20.40. **ELGETA-EIBAR.** Jaisteko: 20 minutu geroago.

EIBAR-MENDARO. Lanegunak: 06.10 eta 07.05etatik 21.55etara 20 minutu eta 22.20. Zapatuak: 07.00etatik 22.00etara ordu eta 23.10. Jaiegunak: 08.00etatik 21.00etara ordu eta 22.15. **MENDARO-EIBAR.** Lanegunak: 06.15, 06.50-etatik 21.10etara 20 minutu eta 22.05. Zapatuak: 06.45etatik 20.45etara ordu, 22.05 eta 22.45. Jaiegunak: 07.45etatik 20.45etara eta 22.05.

EIBAR-LOIU. Egunerok: 05.50, 09.50, 13.50, 17.50 eta 21.50. **LOIU-EIBAR.** Egunerok: 07.15, 11.15, 15.15, 19.15 eta 23.15.

tren ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13.

DONOSTIA-EIBAR. Egunerok: 07.47etatik 20.47etara ordu. Lanegunak: baita 05.47 eta 06.47.

EIBAR-BILBO. Egunerok: 08.13etatik 22.13etara ordu, 10.36 eta 21.36. Lanegunak: baita 06.13 eta 07.13. **BILBO-EIBAR.** Egunerok: 06.57etatik 20.57etara ordu, 09.34 eta 20.34. Lanegunak: baita 05.57.

	7		2			5		
3		2	4			9		
6	5			8			7	
4			5					
				2				
					1			7
	4			1			5	8
		9			4	1		6
		8			2		4	

SUDOKUA

3	8	5	2	1	4	9	6	7
1	9	2	8	7	6	5	4	3
6	4	7	5	3	9	1	8	2
8	5	3	9	6	7	2	1	4
2	6	4	1	8	3	7	9	5
7	1	9	4	2	5	6	3	8
4	7	1	6	5	8	3	2	9
5	2	8	3	9	1	4	7	6
9	3	6	7	4	2	8	5	1

AURREKOAREN EMATZA

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Babes Ofizialeko pisua salgai Soraluzen. 3 logela, trasteroa eta garajea. 80 m². Tel. 637-321970 eta 635-728510.
 – Loft bikaina salgai edo alokagai. Argitsua. 102 m² + 40 m²ko lorategia. Tel. 656-723437.
 – Pisua salgai Soraluzen. 60 m². 2 logela, egongela, sukaldia eta bainua. Dena kanpora begira. Berriztuta. Teilatu berria. Kalefakzio urdina. 66.000 euro. Tel. 617-207672 (deitu 18.30etatik aurrera).

1.2. Errentan

– Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 679-910991.
 – Pisua hartuko nuke errentan Eibarren. Tel. 632-883925.
 – Senar-emazteek pisua hartuko lukeite alokairuan Eibarren. Tel. 632-450278.
 – Conilen (Cádiz) 2 logelako apartamentua alokagai. Hondartza inguruan. Tel. 653-733457.
 – Valle Ramalesen (Kantabria) txaleta alokagai urte osorako. Tel. 653-733457.

2. Motorra

2.1. Salgai

– Karabana salgai. Guztiz ekipatua eta Mutrikuko Santa Elena kanpinglean gordeta. 2 girokoa eta 5 plaza. Abanxe finkoa: sukaldia, garbigailua, hozkailua... Prezioa adosteko. Tel. 607-230077. Edu.

3. Lokalak

3.1. Salgai

– Garaje itxia alokagai Urkizuko do-reetan. Tel. 616-959625.

3.2. Errentan

– Garajea alokagai Txomon. Tel. 658-710898.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira:
 Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro.
 Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskaerak
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

4. Lana

4.1. Lan bila

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 657-396018.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. Tel. 602-894478.
 – Psikologoa eskaintzen da kabinete batean lan egiteko. Esperientzia helduen eta haurren psikoterapiaren eta taldeko terapiaren. Tel. 696-856439. Yolanda.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 648-196651.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Tel. 638-824278.
 – Neska euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. Tel. 617-571210.
 – Emakumea eskaintzen da sukaldari-laguntzaile moduan, nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 679-910991.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 632-883925.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan ere. Tel. 627-652870.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduz gain zabala. Tel. 631-385949. Carmen.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 686-739143.
 – Klinikara laguntzaile euskalduna eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita asteburuetan eta gauzez ere. 3 urteko esperientzia. Tel. 616-181118.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 639-962219.
 – Emakumea eskaintzen da orduka zainketak egiteko eta garbiketara lanetarako. Tel. 690-783065.
 – Haur Hezkuntzako goi mailako teknikari euskalduna eskaintzen da lan egiteko. Esperientzia. EGA eta FIRST tituluak. Tel. 660-522271.

– Neska eskaintzen da ostalaritzan lan egiteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 600-728437.
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lan egiteko. Tel. 663-609994.
 – Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta edozein lan egiteko. Tel. 631-372707.
 – Lehen Hezkuntzan lizentziatua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientzia. Tel. 675-765376 eta 943-031697.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Interna. Tel. 672-853930.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, garbiketarako egiteko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Orduz gain zabala. Tel. 632-054894.
 – Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko, sukaldari-laguntzaile moduan eta garbiketarako egiteko. Tel. 666-008974.
 – Gizona eskaintzen da ganbarak edo etxebizitzak garbitzeko, trasladoak egiteko eta igeltsero zein margolari jarduteko. Furgonetarekin. Tel. 660-213652.
 – Neska euskalduna eskaintzen da ile-apaindegian lan egiteko. Esperientzia. Tel. 610-096417. Nerea.
 – Gizona eskaintzen da ganbarak edo etxebizitzak garbitzeko, trasladoak egiteko eta igeltsero zein margolari jarduteko. Furgonetarekin. Tel. 637-207806.
 – Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 603-608317.
 – Mutil euskalduna eskaintzen da kamarero jarduteko eta edozein lan egiteko. Esperientzia. Tel. 688-819010 eta 688-628863.
 – Neska arduratsua eskaintzen da garbiketara lanak egiteko. Baita asteburuetan ere. Esperientzia. Tel. 639-611454.
 – Emakumea eskaintzen da sukaldari laguntzaile jarduteko, nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Tel. 608-474923.
 – Mutila eskaintzen da kamarero jarduteko, nagusiak zaintzeko eta igeltsero-laguntzaile moduan. Tel. 618-298636.

– Mutil arduratsua eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 639-611454.
 – Emakume euskalduna eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko 13.00etik 17.00etara. Tel. 618-875007.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 699-232823.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko, etxeko lanak egiteko eta sukaldari jarduteko. Tel. 626-946905.
 – Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko orduka. Tel. 627-768684.
 – Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. Tel. 645-702766 eta 636-841158.
 – Emakumea eskaintzen da nagusiak etxean edo ospitalean zaintzeko. Interna. Tel. 625-895460.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Emakumea eskaintzen da portugesez edo ingelesez klaseak emateko. Frantsesezko klaseak jasoko litzuzke berak trukean. Tel. 662-134523.
 – Arkitekto euskaldunak DBH eta Baxilergoko klase partikularrak ematen ditu: Matematikak, Fisika, Kimika eta Marrazketa Teknikoa. Tel. 615-704540.
 – Alemaniera klase partikularrak ematen ditu. Kalean eta lan munduan erabiltzeko metodoa. Hutsetik hasita maila egokia azkar eskuratzeko. Tel. 690-025579.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Ohe-kabia salgai, 90ekoa. Oso egoera onean. 100 euro. Tel. 628-341448.
 – Sei hilabeteko umearentzat silla erosi nuke. Tel. 687-261144.
 – Umearentzat silla morea (Stokke 2011) eta sonrilla eta sillarako zakua, Maxi-Cosirako adaptadorearekin salgai. 700 euro. Tel. 646-555413.
 – Nagusiak mugitzeko garabi eta ohe artikulatu ortopedikoa (alboetako barrekin) salgai. Osagarri guztiakin. Tel. 94-4232377, 675-712737 eta 943-702654.

6.2. Eman

– Urtebeteko Gorbeaiko artzain-txakurra oparitzen dut. Emea. Oso alai. Tel. 695-716229.

6.4. Bestelakoak

– Baserrian jaiotako katakumeak oparitzen dira. Tel. 646-601923.



**Ignacio
Zuloaga
Institutua**

EIBAR



Aurrematrikula Maiatzaren 2tik 14ra

Batxilergoak: Arteak - Humanitateak eta Gizarte Zientziak - Zientziak eta Teknologia



Elkartrukeak



Alemania - Ingalaterra



Jardifeta 3 Eibar · Tel.:943208349 · Fax:943206048 · www.ignaciozuloaga.net · E-mail:012055aa@hezkuntza.net

LA SALLE AZITAIN IKASTETXEA

2013-2014 ikasturterako eskaintza

BATXILERGOAK (A eta D)

ZIENTZIAK ETA TEKNOLOGIA / GIZA ETA GIZARTE ZIENTZIAK

**Badugu
ikasteko
leku bat
zuretzat!**



La Salle
Eibar

Q
Euskadi
2009

943 121 698

**maiatzaren
2tik 14ra**



bista eder

clinica dental - hortz klinika



**Irribarreak
gaztetu egiten gaitu**

**Inplante eta
Hortz-Estetikan
adituak**

**Bista Eder Hortz Klinika
Bista Eder, 19 - behea -EIBAR-
943 70 00 82 / 943 20 84 75**